ARGIA

SAGARRONDOTIK

Egurra eta ondarea



Jon Torner Zabala

2025eko abenduaren 10

Inprimatu

Deskargatu PDFa

ARGIA

aurre egingo dieten hedabide independenteak

EGIN ARGIAKOA

Zurgintzak garrantzi handia izan du Euskal Herriaren historian, izan itsas edo mendialdean. Baserri-dolareak dira horren lekuko, eta itsasontziak, "buruz behera dauden baserriak", Jabier Lekuona arkitektoak dioen bezala. Bera izan da Sagardoaren Lurraldeak antolatutako *Sagardo Forum* jardunaldietako hizlarietako bat. Ondarea izeneko jardunaldi teknikoetan hartu du parte, Astigarragako (Gipuzkoa) alkate Xabier Urdangarin, arkitekturan doktore eta EHUko irakasle Ibon Telleria eta Arkeolan Fundazioko dendrokronologia laborategiko buru Josué Susperregirekin batera.

Dolareak, egurra, kultura, ondarea... eta guztiak barnebiltzen dituen sagardoa. Horiek izan dira Astigarragako Erribera kulturgunean eskainitako hitzaldietako ardatz, historian atzera eta aurrera. Xabier Urdangarinek ireki ditu azaroaren 20ko jardunaldi teknikoak. *Dolareak* proiektuaren bueltan aritu da, Erbitegi baserriko dolarea biziberritzeko lanez. Baita egurrezko piezak gorde eta birgaitzeko sortu nahi duten gune/tailerraz ere, zeinak Cementos Rezolaren (Donostia, Añorga auzoa) eraikin abandonatua hartuko duen. "Pieza etnografiko horietan dago gure nortasuna, historia", dio.

Gure lana da herritik, menditik, hirira egitea, eta ez alderantziz, hormigoia mendira eramatea, alegia". ABIER LEKUONA

Jabier Lekuona arkitektoak ere hitz egin du zaharberritzen ari diren eraikin hartaz, bera kide den Peio Martikorena Fundazioa proiektuan parte hartzen ari den heinean. "Gure lana da herritik, menditik, hirira egitea, eta ez alderantziz, hormigoia mendira eramatea, alegia", esan du. Baserriberri edota Albaolako Museoaren proiektuez solastatu da, horietan ere murgildurik baitira fundazioa eta Lekuona. "Baserriko kultura zaindu, berreskuratu eta zabaltzea" du helburu Peio Martikorenak, "atzokoaren, gaurkoaren eta biharraren arteko elkarrizketa gisa".

ARGIA

ikasleekin bueltu Durtxarrieko Tomaseneta baserria zaharberritzeko lanetan murgilduta. Proiektu kolektibo horrek du Baserriberri izena.


Erdi Aroko baserrien testigantzak

Hitzaldi mamitsuak eskaini dituzte Ibon Telleriak eta Josué Susperregik. Dolareek historian izan duten garapenaz aurkezpen ederra osatu du EHUko arkitektura irakasleak, arreta berezia jarrita XV. mendean Euskal Herrian agertutako lehen dolareen osteko urteengan. Hamaika irudi erakutsi ditu, Gipuzkoako mapa bat tartean, 2022koa, zeinak jasotzen dituen zutik dirauten Erdi Aroko baserriak. Kuriosoa da, puntutxo gorri ia denak barnealdean baitaude, Goierrin-eta, bakarra baino ez da ageri kosta partean. "Ikusten duzue, kostan ez dira hainbeste agertu; batetik, Josuék azalduko dizue gero, zonalde horietako baserrietako egurra, zurajea, ez delako hain ona neurketa bat egiteko; eta, bestetik, presio urbanistikoa handiagoa izan denez, baserriek aldaketa gehiago jasan dituztelako".

Arkeolan Fundazioko dendrokronologia laborategiko buru da Josué Susperregi. Dendrokronologia, egurrari buruzko informazioa jasotzea helburu duen metodo zientifikoa da, egurrean ageri diren hazkuntza-eraztunak ikertzen dituena. "Badakizue zertaz ari naizen, ia denok kontatu ditugu noiz edo noiz moztutako arbola baten enborreko eraztunak", azaldu du Susperregik. "Arbola guztiek ez, baina zonalde epeletakoek urtaroz-urtaroko hazkuntza daukate, udaberri-udan hazi egiten dira, eta udazken-neguan hazteari lagatzen diote. Ondorioz, eraztunak sortzen dira, eta horiek ikertuta badakigu moztu zutenean zuhaitzak zenbat urte zituen, zeinak pista asko eman dezakeen basoen kudeaketaz, esaterako". Inportantea da hori, urte luzean garaiko petrolioa izan baitzen egurra, Arkeolan Fundazioko kidearen hitzetan: "Egurra zuenak boterea zuen, aurrera egiteko indarra". Uste baino informazio gehiago eman dezake baserri bat, dolarea, itsasontzi bat edo altzari bat egiteko baliatutako egur zatiak.

ARGIA
estatistikoak, data-segida luzeak behar dira ondorio fidagarriak lortzeko. “Gipuzkoan, aldakortasun klimatiko izugarria dago”, kontatu du Susperregik. “Kostaldean, haritzak mugarik gabe hazi daitezke, hezetasunik ez dute falta, ez dago arazorik tenperaturari dagokionez, neguan ez du hotzik egiten, ez lehorterik udan”. Zer gertatzen da, bada?. “Nahi beste hazten diren haritzak ditugu. Demagun 40x40 neurtzen duen zutoina daukagula. Beste edozein lekutakoa izanik, eraztun-segida zoragarria izango luke, baina Errenteria, Hernani edota Irun aldekoa baldin bada, 40-50 hazkuntza-eraztun besterik ez ditu izango”. Oso gutxi direla dio dendrokronologoak, zaila dela emaitza eztabaidaezinak lortzea. Ondorioak fidagarriagoak dira arbolaren hazkuntzak murrizketa edo geldialdiren bat sufritu badu, seinale klimatikoak erregistratzen direlako. Kostaldeko haritzek, mugarik ez dutenez, ez dituzte seinale horiek erakusten. Aldiz, barnerago eginda, datazio-kasu gehiago dago. “Goierri, adibidez, paradisua da”, dio Susperregik, kostaldeko baserri bateko zutoinak 50 eraztun dauzkan bitartean, ezaugarri bereko zutoinak 150 edo gehiago izan ditzakeelako barnealdean.

ARGIA



Gipuzkoako XV. mendeko baserriak (2022). Arkeolan Fundazioko Josué Susperregiren hitzetan, kostaldean ziurrenik izango da Erdi Aroko baserri gehiago, baina ezin dituzte datatu, egurraren ezaugarriengatik.

"Beraz, Gipuzkoako mapan ageri den banaketa ez dator guztiz bat errealitatearekin. Kostaldean ziurrenik izango da Erdi Aroko baserri gehiago, baina ezin ditugu datatu, osagai estatistiko hori dela-eta. Bestelako faktoreak ere badira, noski, industrializazioaren eragina-eta. Gainera, zonalde pobreetan, nolabait esateko, hobe mantendu dira baserriak, diru gehiago egon den herrietan erreforma handiagoak jasan dituzte, eta egiturak erabat aldatu dira". Zubietan (Gipuzkoa) egindako ikerketak jarri ditu adibidetzat: "Emaitza zoragarriak lortzea espero genuen, baina hango baserri gehienak itsasontzietako kapitainenak ziren, diru asko zeukaten merkatarienak, eta XVII-XVIII. mendeetan eraikinek aldaketa handiak jasan zituzten".

Astigarragako alkate Xabier Urdangarinek adierazi duen moduan, baserritar, basozain edota zurginek "jakintza ikaragarria" pilatu dute, eta "tamalez" azken 50 urteetan galera handia jasan dugu jakintza horri dagokionez. Dioenez, *Sagardo Forum* jardunaldietan hizpide izan diren egitasmoek lagunduko digute egurrezko ondarea

sagardogintzarekin lotutakoari tarteak. Bada zer ikerta, zer irakatsi eta erakutsi.

Irakurri gehiago: Sagarrondotik, Ekonomia, Lehen sektorea, Laborantza, Sagardoa, Egurra eta zura, Ingurumena, Landareak, Basoa, Zuhaitzak, Lorategia

ASTEKARIA



2943. zenbakia
2025eko abenduaren 14a

ASTEKARIA PDF-AN

Publizitatea



IRAKURRIENAK

Matomo erabiliz

#1 **Efemeridea: Thailandiako ehunka ikasle eta langile hilko zituen sarraskia abiatu zuen eskuin muturrak**
ARGIA

#2 **Efemeridea: Euskal presoen defentsan zebiltzan 16 lagun atxilotu eta 100.000 euro lapurtu zituen Espainiako Poliziak**
ARGIA

#3 **Efemeridea: Pistolaz duelua egin zuten Txilen Salvador Allende eta Raúl Rettig senatariek**
ARGIA

#4 **Efemeridea: Ismael Berasategi presoak ihes egin zuen Parisko La Santé espetxetik, Joxean anaiak haren lekua hartuta**
ARGIA

Azoka



Sendabelarrek dakitena
25,00€

Sagarrondotik kanalean gehiago



2025eko abenduaren 10
SAGASTIETAKO BIOANIZTASUNA
Etengabe esperimentatzen, lurrari begira beti



2025eko abenduaren 10

SAGARRAREN EKOIZPEN KOSTUAK

Sagardoa merke... baina noren bizkar?

Garazi Zabaleta



2024ko abenduaren 16

EUSKAL SAGARDOA

Ipar eta hego, mendeetako tradizioa txapel beraren pean

Jon Torner Zabala



2024ko abenduaren 16

OZAETAKO (BARRUNDIA) SAGAR ZUKU EKOIZPENA

8.000 sagar zuku litro ekoitziak, 900 biztanleko herrian

Garazi Zabaleta



2024ko abenduaren 13

Sagarra jotzen da ez bakarrik Gipuzkoan

Itsaso Zubiria Etxeberria



2023ko abenduaren 20

Usurbilen, esperientzia parte-hartzaile eta burujabea

Jon Torner Zabala




2023ko abenduaren 20

SAGARRONDU

Sagastia okupatu, hura biziberritzeko

Jon Torner Zabala



2023ko abenduaren 15

Stalinen mandatupean gatibu hil zen botanikari sobietarra

Jon Torner Zabala



Sagarrondoak 1.000 metrora landatu dituen eskultore matematikoa

Jon Torner Zabala



2023ko urtarrilaren 18

Sagarraren "azken mohikanoek" badute segidarik Baztanen

Garazi Zabaleta



2021eko abenduaren 22

Tian Shan mendilerroa, sagarrondoaren "sorleku"

Jon Torner Zabala



2021eko abenduaren 22

TREBIÑU SAGARDOTEGIA

Udaberriko izotzetara egokitutako sagarrondo berantiarrak

Jon Torner Zabala



2021eko abenduaren 22

SAGARDOGINTZA ETA EMAKUMEAK

Gizonezkoena izan den munduan, beren tokia egiten

Garazi Zabaleta



2020eko abenduaren 15

Genesitik Zakilixutera

Jon Torner Zabala



2020eko abenduaren 15

Sagarra, Euskal Herriko altxorra

Unai Agirre

ARGIA

ARGIA

CC BY-SA

Edukiak kopiatu, moldatu, zabaldu eta argitara ditzakezu, egiletza aitortu eta baldintza beretan eginez gero. Lizentzia hau baliagarria da testuentzat eta, argazkien eta ilustrazioen kasuan, ARGIAren sinadura daramatenentzat soilik.

SAREKO KIDE

Ekoedizioaren Institutuko bazkide

JARRAITU

LAGUNTZAILEAK

metzagaiña | ADUR software | antza KOMUNIKAZIO GRAFIKOA | iametza | ARGIA